

Aretxabaleta,  
1994eko irailak 15

# Aretxagazeta



**94-95 ikasturtea  
gainean**

• Zaldibar futbito txapelketa

• San Migelak gertu

• Kontu Zaharrak

3. Boteprontoa  
Zein da eskolan gehien gustatzen zai  
zun arloa?
- 5 Hamabostean behin  
Nafarroa oinez, Beran.
6. Hamabostean behin  
Hitzaldia eta unibertsitatera joateko  
autobusak
- 7-8-9. Hamabostean behin  
San Migel Jaiak
10. Erreportaia  
94-95 ikasturtea
14. Besteak beste
15. Kontu zaharrak
18. Hurretik  
Luciano Guisado
19. Apuntetako eta Aretxazoka

## IKASTURTE HASIERA

Goiz - goizetikan somatzen dira  
haurrak batetik bestera  
batzuek alai, besteak goibel  
denetarik ikusten da  
autobusean edo ta oinez  
denak eskola aldera  
berriro ere iritxi bait da  
ikasturte hasiera

Nahiz kurtso honek izango duen  
hainbat asmo ta helburu  
alperketian pasa ditugu  
hiru hilabete inguru  
arkatza nola heltzen den ere  
jadanik ahaztu zaigu  
lehen ikasia berriz oroitzen  
nahiko lan izango dugu.

*Amaia Agiriano*

**Aretxagazeta**

**Argitaratzailea:** Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta Tfnoa: 79 01 05. 151 postakutxatila  
**Zuzendaria:** Inaxio Garro, **Erredakzio-kontseilua:** Nati Abasolo, Marta Madinabeitia, Iñigo San Juan, Mirian Txintxurreta, Rosa Mari Uriarte eta Jon Iñaki Izarzelai. **Publizitate eta erredakzio arduradunak:** Itxaro Zubillaga eta Agurtzane Elkoro **Kolaboratzaileak:** Alfredo Meabe, Gaizka Larrinaga, Aitor Antxia, Gotzone Guemes, Iñaki Urreta, R. Velasco, J. Fuensanta, Loramendi K.E., Udala. **Inprimategia:** Eguzkigraf **Tirada: 2.500 ale.** Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** 55378/94

# • Zein da eskolan gehien gustatzen zaizun arloa?



**Irati Bidriales**  
(Ikaslea)

Niri batuketak egitea gustatzen zait eta idatzi eta irakurtzea ere bai.



**Maialen Marrodan**  
(Ikaslea)

Hezkuntza da gehien gustatzen zaidana. Matematikak gutxiago gustatzen zaizkit.



**Irati Romero**  
(Ikaslea)

Nire eskolan gehien gustatzen zaidana lagunekin egotea da eta gero eskulanak egitea.

## KARTAK

Agur t'ardi bazkide:

Eskutitz honen bitartez zuregana zuzenduz, honako berri hau eman gura dizugu.

Loramendi Kultur Elkar-teak eskuartean dituen proiektu edota asmo batzuk aurrera eraman ahal izateko, pertsona bat egun erdiz kontratatzeko deialdia egin zuen uztailen.

Deialdiaren epealdiaz arazoak izan direla eta, lanpostu bera betetzeko Loramendi Kultur elkarteak deialdi berria plazaratzen du. Lanpostu hori betetzeko prest egonez gero, lehenbailehen lokaletik pasa edo deitu 770970 telefonora.


Izena emateko azken egu-

na: irailak 21

**Loramendi Kultur  
Elkarteko Zuzendaritza  
Batzordea**



**Gipuzkoako  
Foru Aldundiak  
diruz lagundutako  
aldizkaria**



**Kultura sailak  
diruz  
lagundutako  
aldizkaria**

**MITARTE  
GARAI**

• *Jatetxea eta logelak* •  
Areantza auzoa  
☎ 79 17 51



**Kurtzebarri eguna ospatu zen domekan.** Eguna ospatzeko, Murrukixo mendi - taldeak zenbait ekintza antolatu zituen, besteak beste, 11.30etan meza egon zen eta bertara hurbildu zirenek salda beroa eta txanpaina edateko aukera izan zuten. Esan behar da, urtero moduan aurten ere, jendeak ondo erantzun zuela eta giro polita izan genuela Kurtzebarri puntan.

**Arientza auzoan bertako jaiak ospatu zituzten asteburuan.** 4 egun iraun zuten jaie-tan denetik egon zen: auzo afaria, "Mokofin" lehiaketa, txarri harrapaketa, gimkana txapelketa, umeentzako jolasak, dantzaldiak... Zer egin eta non ondo pasatu eduki zuten bertara hurbildu ziren guztiek. Jai giroa nagusi, beraz, Arientza aldean. Kontuak kontu, aurtengo jaiak bukatu zaizkie, orain datorren urteko jaiezaz pentsatzen hasi beharko dira bertako auzokideak.



**MZ** MASAILARIAK


**MASAIK ZARAIA**  
MASAIK eta  
OSTEOPATIA

Loramendi 13 - 1-A  
Tfnoa: 79 71 55

**"HERRASTI"**  
**AKEITA ETXEA**



Aralar kalea, 7  
Tfnoa: 79 32 83



**IBARRA**  
**ESTANKOIA**

**Tabakoa eta**  
**ikasmateriala**

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77



## Irakasleentzat ikastaroak Kurtzebarri eskolan

Kurtzebarri eskolan irakasleei zuzendutako ikastaroak egin dira. Gaia "Murgiltze ereduari dagokion hizkuntzaren tratamendua" izan da, eta bertan bailarako zenbait irakaslek hartu dute parte. Irailaren 6an eta 7an egun osoko ikastaroa izan dute. Hala ere, irailako azken egunetan eta urriaren zehar ere, ikastaro hauekin ja-

rraitzeko asmoa azaldu digute. Irailaren 19an, astelehenean, barrero ere, saio berri bati ekingo diote, arratsaldeko 5etatik 7etara, eta urria bitartean astelehenero mota honetako ikastaroa izango dute inguruetako irakasleek Kurtzebarri eskolan. Ikastaroko hizlariak Marian Bilbatua eta Matilde Sainz izan dira.

## Zaldibar futbito txapelketa

Arrasaten antolatzen den Zaldibar futbito txapelketan atxabaltarren batek parte hartu gura badu, jakinarazten dizuegu datorren irailaren 20an, asteartean, bilera informatiboa egongo dela Monterrongo hitzaldi aretoan. Bilera honen helburua, antolatzaileek esan digutenez, txapelketan egongo diren arauak eta zehaztasun

guztiak argitzea da, gero Maritxu Kajoi bixamonan neurketak hasten direnean arazorik egon ez dadin.

Horrela bada, 94-95 Zaldibar futbito txapelketan parte hartu gura baduzu, ez ahaztu 20an arratsaldeko 7etan zehaztasun guztien berri izateko bilera izango duzula Monterronen.

## Taila ikastaroa

Urriaren 3an "Okilak" taldeak antolatu duen **taila ikastaroa** hasiko da. Ikastaroa Okila taldeak duen tailerrean emango dute eta ordutegia arratsaldeko 6etatik 8etara izango da. 50 orduko ikastaro honetan, hasierako mailatik hasiko direnez, edonork parte hartzeko aukera izango du. Beraz, taila egitea gogoko baduzu eta ikastaroa interesatzen bazaizu, hiru tokitan eman dezakezu izena; "Okila"ren tailerrean, Udaletxean edo Kultur etxean.

## Nafarroa Oinez

Hilabete honetan "Nafarroa oinez" ospatuko da Beran. Irailaren 18an zita garrantzitsua izango dugu Nafarroa aldean eta urtero moduan Loramendi kultur taldeak autobusak antolatu ditu bertara joateko. Txartelak Arlutz eta Loramendiko lekuan eros ditzakezu 900 pta-tara. Domekan autobusak Azbetik irtengo du, goizeko 9ak laurden gutxitan.



## Hitzaldia

Irailaren 23an Oñatiko kultur aretoan Tertulia-aurkezpena gaia- ren inguruan hitzaldi bat egongo da. Hitzlaria Andu Lertxurdi da eta bere azken liburuaren gainean, "Otto Pette" liburuaren gainean berba egingo du. Arratsaldeko 7.30etan izango da hitzaldia.

## Unibertsitatera joateko autobusak

Donostiara eta Bilbora egu- nero joan eta etortzeko autobus zerbitzua antolatzeke asmoa du "Aixola" ikasleen elkarteak. Goi- zez nahiz arratsalde egongo dira autobusak, eta ordutegi desber- dinak egongo dira. Interesatuta bazaude, Arrasateko Gazte Bule- goan eman dezakezu izena, baina irailaren 23a baino lehen izan behar da.

## Yoga ikastaroa

Urriari yoga ikastaroak ha- siko dira, barriro ere. Guztira 3 txanda egongo dira: martizen eta eguenetan goizez, 11etatik 12.30ak arte. Beste talde bat arrat- saldez egongo da, 3.15etatik 5 laurden gutxira arte, talde honek astelehen eta eguaztenetan izan- go ditu klaseak. Eta hirugarren taldea ilunkarakoa, 7etatik 8.30ak arte, martizen eta eguenaten.

Irakaslea Enkarna Mendez izango da.


Esan beharra dago, 11etatik 12.30ak arteko taldea hasi be-

rrientzako izango dela eta beste biak yoga egitea zer den ezagu- tzen dutenendako.

Bestalde, esan behar da, irai- leko azken hamabostaldian jende berriarentzako klase bereziak emango direla.

Yoda ikastaroa Loramendi Dantza taldearen lokalean eman- go da. Beraz, yoga zer den jakite- ko gogoia baduzu edota ezagu- tzen duzulako egiteko asmoz ba- zabiltza ez galdu aukera eta izena eman lehenbailehen. Kultur- etxean eman dezakezue izena.

## EGUZKIGRAF



**Aldizkariak  
Inpresok  
Bulegoko materialak**

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA  
Tfnoa.: 943-79 18 44 Faxa 943-79 29 41

## EXPRESS AKEITEGIA

Santa Kurtz, 16  
Tfnoa: 79 23 43

# San Migel jaiak gero eta indartsuago



## 23 Eguakotxa

**5.30etan** Bonba japonia-  
ren jaurtiketa.

**6etan** buruhaundiekin ka-  
lejira, txistulariek lagunduta.

**7.30etan** kale animazioa  
Hortz Muga taldearekin.

**10etan** Bertso saioa, Lo-  
ramendi Kultur Elkarteak an-  
tolatuta, Zاراia zineman.

Bertsolariak: Jon Maia,  
Jon Sarasua, Jokin Sorozabal  
eta Igor Elortza. Jai jartzai-  
lea: Jon Iñaki Izarzelaiia.

### SAGASTA

#### ELEKTRIZITATEA

Elektrogailuak  
Elektra - instalakuntzak

Otalora, 14  
☎ 79 16 10



INDUSTRIA  
HORNIKUNTZAK  
URKULU, S.A

Mitarte, 23  
Tfnoa: 79 96 66

### IMANOL ARRAZOLA

#### KLINIKA DENTALA

Otalora, 18 - 1. D  
☎ 79 93 55

24 Zapatua

**10.30etan** herriko txistulariekin diana.

**11etan** txalaparta

**11.15etatik ordu batera** Kalejira Arrasateko gai-teroeekin.

**12.30etatik 1.45etara** Herri poteoa herriko trikitilari-ekin.

**1.45etan** herri bazkaria herriko plazan

**4retatik 5etara** kalejira herriko trikitilari-ekin

**6etatik 7etara** Lora-mendi dantza taldearen dantza saioa

**7etan** Beinke-Loramendi dantza kantuauren aurkezpena.

**7.30etan** Loramendiko lokalaren inaugurazioa

**7.30etatik 9etara** Dan-tzaldia herriko trikitilari-ekin

**10etan** IV Bola txapelke-ta

**11etan** pilota partiduak,

Iturrigorri frontoian.

**11etatik 3ak arte** Maixa eta Itziarrekin dantzal-dia, Durana kalean.

**5etan** salda eta txokola-tea, danondako.



*Egun honetan baserritar jantzita irtetea gomenda-tzen da. Gaiñera egunean zehar taloak eta sagardoa dastatzeko txoznak egongo dira Durana kalean. Honez gain, artisau erakusketa bikaina ikusi ahal izango dugu Plazako arkupeetan.*



**ITURGINTZA**

**J.J**

Tfnoa: 79 07 34  
79 31 87

**M**obiliario  
**A**RENAZA

ALTZAIRUAK  
DISEINUA  
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 ARETXABALETA



25 Domeka

**10.30etan** San Migel XIII. txirindulari lasterketa, 1. eta 2. urteko jubenilak. Ibilbidea: Atxabalta-Almen-Eroski-Epele-Sara- Arrasate-Atxabalta-Eskoriatza- Atxabalta-Arrasate-Epela-Sara-Arrasate-Atxabalta-Almen-Mugarri-Atxabalta.

**12etan** Atxabaltako Bandarekin kalejira.

**1ean** Bandarekin Kontzertua Durana kalean

**4etan** II. San Migel Mus txapelketa. Izen ematea 3.30etan hasiko da.




**6.30etan** Atxabaltako bandarekin kalejira.

**8etatik 11etara** Aldaba taldearekin dantzaldia Durana kalean.



Ondo pasau  
San Migelak

## 94-95 ikasturtea hastera doa



Hemendik gutxira ikastetxeetako gelak ez dira horrela egongo, ikaslez beteta baizik


Iraila ez da hilabete ona izaten ez langileentzat ezta ikasleentzat ere. Langileak nahi eta nahiez, hilabete hasieran euren lantokiara itzuli behar dira. Ikasleek, barriz, oporretan egoteko egun batzuk gehiago izaten dituzten arren, horiek ere laster bukatzen dira. Beraz, dagoeneko, Atxabaltako ikastetxe batzutan hasi da 94-95 ikas-turtea. Ikas-urtearen hasierak zenbait arazo dakartzatza berarekin, batez ere ekonomikoa. Gaur egun umeak ikastera eramateak diru asko suposatzen du eta hori inork baino hobeto gurasoek dakite. Batetik liburu barriak ero-

si behar dituzte, bestetik eskola material berria eta jakina, ikasturte hasiera denez, umeek boligrafo, motxila, atxingi, kartera... berrienak eta politenak gura dituzte, modan dauden horietarikoak hain zuzen ere.

Eskolara itzultzeak ekar ditzakeen arazoak ikusita, eta horren gainean sakondu guran, pelikula honetako hiru protagonisten iritziak jaso gura izan ditugu. Hau dela eta, irakasle, guraso eta ume batzuekin egon gara berbetan eta eurak esandakoa jaso dugu ondorengo orrialdeetan.



**Eba Agirre**  
(Irakaslea)



**Jose Antonio Rodriguez**  
(Gurasoa)

- Ze prestaketa egiten duzue ikasturtea hasi baino lehen?

- Normalean ikasturtea hasi baino lehen ikastaroak egiten ditugu dauden berrikuntzak, programa berriak eta abar ikusteko. Irakaslek ere, egun hauek aprobetxatzen ditugu batu eta hartu beharreko erabakiak hartzeko, hau da, kurtsio banaketa, irakasle bakoitzari tokatuko zaion klasea erabaki. Prestaketa lanetan murgildurik egoten gara egun hauetan.

- **LOGSE dela eta, ze aldaketa izango da?**

- Erreforma hemen hasita dago, beraz, aldaketa nabarmenik ez da egongo. Aldaketa bakarria lehen hezkuntzan emango da. Lehen hezkuntzan, lehen 3. 4. eta 5. mailak sartzen baziren, orain LOGSE dela eta, 6. maila ere lehen hezkuntza horretan sartuta egongo da. Bestela, metodologia eta gai aldetik aspaldi hasi genuen erreforma.

- **Nolakoa da ikasleen erantzuna lehenengo egunetan?**

- Txikienak urduri etortzen dira, eurentzat dena berria da; urduri baina era berean pozik. Nagusia- goen erantzuna barriz, oso bestelakoa da, ez dira hain pozik etortzen eta lehen egunetan erritmoa hartzea asko kostatzen zaie. Nagi samar etortzen dira.

- **Gurasoak arduratzen dira ikasleen ikasketaz?**

- Gero eta gehiago arduratzen dira eta irakasle on lana azken urteetan ere, horixe izan da, gurasoak ikastetxera hurbiltzen saiatu. Harremana gero eta sakonagoa da.

- **Horrenbeste diru suposatzen du seme - alabak ikastera eramateak?**

- Dirua gastatzen da, baina duela urte batzutako egoeraz parekatu ezker, gutxiago gastatzen dela uste dut. Beste alde batetik, hezkuntza kalitatea askoz ere hobetua dela esateko moduan gaude. Dena dela, oraindik alor honetan lan asko egin beharra dugu, dauden kostu horiek gero eta merkeagoak izan daitezzen. Bestalde, jendeak hezkuntza- ren gainean berba egiten duenean kostua besterik ez du ikusten baina hezkuntza inbertsio errentagarria da. Badirudi jendeak beste alor batzutan gastatzen duenean ez duela begiratzen eta hezkuntzan barriz, bai.

- **Eskolako materiala gero eta sofistikatua- goa da eta gero eta garestiagoa. Zer egin horren aurrean?**

- Kontsumozko gizartean bizi gara eta hezkun- tza ere ez dago hortik kanpo. Hala ere, denon artean ahalegin bat egin beharko genuke moda hori horrenbeste ez jarraitzeko, nahiz eta gu bizi garen gizartean gero eta gaxtagoa izan ezartzen dizkigu- ten moda horietatik kanpo geratzea. Honen aurrean seme - alabak hezitu behar ditugu gauzak zaintzen eta aprobetxatzen jakin dezaten.

- **Gurasoek ze harreman duzue ikastetxee- kin?**

- Nik ezagutzen dudan ikastetxean harremana ona da eta erabakiak hartu behar direnean ere, gure hitza kontutan hartzen dute. Gurasoen aldetik parte hartzea gero eta handiagoa da.

- Ze espero duzu aurtengo ikasturterako?
- Eskolak dituen alde onak eta txarrak?



**Ane Zabalo**

(1. REMeko ikaslea)

- Espero dut iaz baino hobeto ibiltzea, baina 1. REMen hasi behar naizenez, hau da, kurtso berri batean, gatzagoa izango dut hobeto ibiltzea. Hala ere, ahaleginak egingo ditut.

- Alde txarrak, zalantza barik, azterketak dira. Onak barriz, egiten dituzun lagunak.

**Ibon Gonzalez**

(3. mailako ikaslea)

- Gehiago ikastea baina era berean jolas gehiago egitea gustatuko litzaidake.

- Alde onak lagunak egitea. Txarrak etxeko lanak eta azterketak izaten dira.



## Ikas-urtearen hasiera Atxabaltako ikastetxeetan

- ▲ **Almen ikastetxea:** Irailak 14- Lehen zikloa  
Irailak 15- Batxilergo orokorra  
Irailak 19- Goi batzilergoa  
Irailak 23- Moduloak
- ▲ **Kurtzebarri eskola :** Irailak 12 -Lehen zikloa  
Irailak 13 -Goi zikloa
- ▲ **Lanbide eskola:** Irailaren 30- Klaseak hasi, goizeko 10etan aurkezpena
- ▲ **Udal eskolaurrea :** Irailak 12tik 16ra goizez bakarrik, hemendik aurrera goiz arratsaldez.
- ▲ **Santa Rita ikastetxea :** Irailak 12tik 16ra goizez bakarrik, hemendik aurrera goiz zein arratsaldez.
- ▲ **Pausoka Haur - Eskola :** Irailak 5. Ume berriak hasi ziren. 12an iazkoak eta 19tik aurrera normaltasunez hasiko dira. Goizeko 7.30etatik 6etara.



Ibarrako zelai artifiziala laister egongo da gertu

## UDAk hasi du denboraldia

UDAKo preferente mailako taldeak irailaren 4an hasi zuten denboraldia. Lehen neurketa kanpoan jokatu zuen Munibe taldearen aurka. Atxabaltarrek binako berdinketa lortu zuten eta partiduko protagonista, zalantza barik, Martinez Gonzalez epaile jauna izan zen. Petral ibili zen eta gainera ez zion UDARI inolako mesederik egin. UDA taldeko golarak Agirrek eta Kermanek lortu zituzten. Denboraldiko bigarren neurketa, Ibarra zelaiaren berri-tze lanak direla eta, Atxabalpeko anexoan jokatu zuten igandean. UDA eta Trintxerpe izan genituen aurrez aurre eta partidua ona

izan ez bazen ere, gol ugari ikusteko aukera izan genuen, 3 gol talde bakoitzeko. UDA taldeko golegileak: Erik 49. minutuan, Arana 64. minutuan, penalti bati esker lortu zuen bigarren gola eta 78. minutuan Jonan izan ziren. Esan behar da UDAK penalti bat kale egin zuela.

Bi norgehiagoka jokatu gero UDA talde sailakpenean 10. postuan dago, 2 punturekin. Datorren domekan, barriz, UDAK Hondarribia taldearen kontra duen neurketan, beste erronka bati egin beharko dio aurre. Hondarribia eta UDA izango ditugu aurrez aurre.

## Aerobic ikastaroa

Atxabaltarrok aurten ere aerobic-a egiteko aukera izango dugu. Izan ere, urriaren hasieran aerobic klaseak hasiko dira eta. Loramendi dantza taldearen lokalean emango dira klaseak eta irakaslea Pili Muñagorri izango da.

Klaseak astean hiru bider izango dira, astelehen, martizen eta eguakotxetan, goizez, eguerdiz nahiz arratsaldez. Baina Aerobica egiteko egunak ipinita egon arren, oraindik ez dute zehaztu ordutegia, hori izena ematen duen jendearen arabera erabakiko da.

Aerobic ikastaroan edonork eman dezake izena. Jarri den baldintza bakarra, gogoia izatea da. Beraz, gogoia baduzu ez ezazu denborarik galdu eta eman zure izena. Izena kultur-etxean eman behar duzue eta kontutan izanda ikastaroak urriaren 3an hasi behar duela, lehen bait lehen ematea komeni da.


**LASA-AGUILERA**

**Aholkularitza**

Andra Mari Auzunea, 3  
 ☎ 79 29 26  
 ARETXABALETA

**LEIBAR**

ARRAINDEGIA



Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
 ARETXABALETA

# Zelabait



J. J. Aretxaga

Eta zer moduz oporretan? (Hasiera orijinala idatzi gura nuen, baina ezin). Erantzunak kolore guztietakoak: zuriak, beltzak, grisak eta baita laruak ere. Baina bueno...oporrak ahaztu eta hasi gaitezen.

Ba...horixe...udazkena bertan daukagu. Hasi dira lehenengo ostroak jausten eta udazkeneko ostroekin batera lora bat joan zaigu Aretxagazetatik. **Agurtzane Elkoro** KEY enpresan buru belarri dabil lanean eta ezin gauza bi batera egin. Faltan botako dugu.

Joan zen astean, hilak 8, herriko korua Senperera joan zen kantetan. Orain arte esandakoak ez zintuen harrituko behar bada, baina ez ziren bakarrik joan. Herriko sei neska-mutikok lagundu zieten, **Aran-**

**tzazu Arietaleanizbeaskoak, Ekaitz Oihanguren**ek, **Ianire Davilak, Alex Heranzek, Idoia Zilaurrenek** eta **Aiora Filarmendik**. 10 eta 12 urte bitarteko artista hauek akordeoia jo zuten, lehenengo bik bakarka eta gero boskoteak. Ez daukate meritu makala! Senperen jo ahal izateko abuztuan ikasten ibili direla kontutan eukita. Merituekin jarraituaz, irakaslea ere aita-tu egin behar, **Luis Mari Elkorobarrutia** lan polita egiten dabil gaztetxo horiekin. Igaz auzketu zen akordeoi orkestra ikusita eta atzetik datozen beste hauen exitoa ikusita, gure herrian akordeoiak etorkizun ederra daukala ezin ukatu.

Aurreko notizia poztekoa bazen, oraingo hau haserretzeko modukoa da, **Juanito Larrinaga** behintzat haserre ei dago. Kirol-etxe aurreko pinuari punta moztu diote. Zertarako? Auskalo.

Notizia tristeak ere izan dira. **Josefina Zubizarreta**, Atxabaltako zaharrena, 99 urterekin hil zen joan zen astelehenean.



## LASAGABASTER

### ZURE KONFIANTZAZKO DENDA

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



J

barrako futbol-zelaia historia da dagoeneko. Hona hemen gomutak beteriko historia horren protagonista berezi batzuk: 1960-61 denboraldian, UDAk gazte mailan atera zuen lehendabiziko hamaikakoaren partaideak:

Zutik: **Jose Gallego, Jose Luis Gorostiaga, Jose Antonio Iturbe, Angel Sagarribai, Julian Aginagalde, Jabier Olazabal.**

Makurtuta: **Zaldua, Axpe, Jose Antonio Zubizarreta(Taulero), Luis Etxebarriarteun, Antonio Uribesalgo.**

 **CIM**  
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Ume eta Gazteentzako Ingeleseko klaseak.  
5. mailatik aurrera programa bereziak Almeneko ikasleentzat.

Matrikula zabalik Kurtzebarri Eskolan  
egunero 5,30etatik 7etara

ARRASATE  
Araba Etorb.  
Tf. 79 01 32

**AITZIBER**  
NIÑO



Lezama Merkatal Zentrua  
Tfnoa: 79 13 32

# Aretxagazetako bazkideok 20.000 pta. irabaz ditzakezue hamabostero.

**C**AJA LABORAL - EUSKADIKO KUTXArri esker, eta goiko titularrak dioenez, atxabaltarron aldizkari honen bazkide zaretenok horrek diru-sorta ederra zuregatu dezakezu hamabostero Gabonak bitartean.

CAJA LABORAL-EUSKADIKO KUTXAk gure sariketa honetan saridun zureganatu denari opari bikaina emango dio, baina bi eratakoa izan daiteke:

- 1) Aipatutako saridunak nolabaiteko lotura (nomina helbideratuta, Superlibreta, Gazte-Kontua, etabar) baldin badauka Euskadiko Kutxarekin, honek **20.000 pta.** emango dio.
- 2) Saridunak Euskadiko Kutxarekin inolako loturarik ez badauka, ordea, saria **10.000 pta.** koa izango da Superlibreta batean sartzeko.

Udaldi partean poltsikoari astindu ederra eman ondoren, majo etorriko zaizu halako opari zoragarria. Zain daukazu zure kontuan sartzeko. Kopuru txiki baten trukean sari zoragarria eskuratu dezakezu.

Lehenik eta behin, hori lortu ahal izateko, **ARETXAGAZETA aldizkariaren** bazkide izan behar duzu. Hotsegizu, 79 01 05 telefonora eta atsegin handiz egingo dizugu kasu.




Irail honetan hasi eta Gabonak arte, "Argazkiarekin jolasean" eta "Galderekin jolasean" txandakatuz ibiliko gara. Aurreko orrialdean ikusi duzuen bezala, merezi du parte hartzeak. Jakizu joku honetan bakarrik ARETXAGAZETako bazkideek har dezaketela parte. Kasuan kasuko, 10.000 eta 20.000 pta. gorde ditugu zuretzat.

## **BAZKIDEEK BAKARRIK IZANGO DUTE JOKU BARRI HONETAN PARTE HARTZEKO AUKERA**

▼ Hilean behin galdera hau egingo da eta hurrengo hamabostaldian ezagutuko dugu irabazlea.

▼ Erantzun guztiek ARETXAGAZETaren bulegoan (Kultur Etxean) egon beharko dute datotzen eguna baino lehen.



  
**CAJA LABORAL**  
EUSKADIKO KUTXA

**Zein da argazkian ageri den atxabaltarra?**



Erantzuna: .....  
Izen-abizenak: .....  
Helbidea: .....  
Tfnoa: .....



**Izena:** Luciano Guisado.  
**Ofizioa:** Kixkorreko tabernaria.  
**Afizioa:** Futbola.  
**Misioa:** Ahalik eta ondoen bizitzeko.

**1.- Gehien saltzen den edaria?**

- Garagardoa ald handiarekin gainera.

**2.- Atxabaltarrok asko edaten dugu?**

- Bai, nahiko edaten dugu.

**3.- Ze edari gomendatuko zenuke?**

- Ez dakit zein esan, nire gustoko edaria "pontxea" da eta hori gomendatuko nuke.

**4.- Egin duzun juergarik onena?**

- Juerga on asko egin ditut, baina bat aipatzekotan ezkondu aurretik egin nuen despedidakoa.

**5.- Tabernan lan egiteko egun onena?**

- Astean zehar, asteburutan jende asko ibiltzen da eta lan

gehiago izaten dugu.

**6.- Ze ordutan oheratzen zara asteburutan?**

- 4.30ak- 5ak aldera.

**7.- Gustoko kirola eta taldea?**

- Futbola, eta taldeari dagokionez Logroñesa gustatzen zait, talde apala da eta azkenerarte borroka bizian ibiltzen dena.

**8.- Ze taldek irabaziko du aurtengo liga?**

- Nik Valentzia taldearen alde egiten dut apostu.

**9.- Bakalau edo Rock 'n roll-a?**

- Rock 'n roll-a, bakalauak zarrata larrei dauka eta azkenean burukomina egiten dizu.

**10.- San Migelak edo Andramaixak?**

- San Migelak, jende gehiagotengandak eta giro hobea dago.

**11.- Zer ez zenuke inoiz jantziko?**

- Militar errota, ikustea ere ez dut gura.

**12.- Pertsonengan ze kualitate baloratzen duzu?**

- Zintzotasuna da gehien baloratzen dudana kualitatea.

**13.- Abortoaren gainean zer duzu esateko?**

- Nik uste dut emakumeek erabaki beharko zutela zer egin gura duten.

**14.- Zerk lotsarazten zaitu?**

- Jendea arrazoi barik diskutitzen hasten denean eta dakinanean ez batek eta ez besteak arrazorik ez dutela.

## OSKAR

HARAGITEGIA

Loramendi, 1

☎ 79 71 69

ARETXABALETA

## ZARAIA TABERNA

GOIZEKO 5,30etatik  
ZURE ZERBITZUAN

MANTEKA ANAIK

Novedades

MODAN  
DAGOEN  
GUZTIA



Iparagirre, 4  
Tfnoa. 79 21 24

## 18

### DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearekin eta Murrukixo Mendi Elkartearekin urteera: **Besaide eguna.**

- Zikloturisten urteera: **Dorleta - Dorleta.**

ra. (Ikus egitarau berezia).

## 24

### ZAPATUA

- **San Migel jaiak.**  
Ikus egitarau berezia.

## 25

### DOMEKA

- Zaraia Mendi Taldearen urteera: **Zaraiako bira.**

- Murrukixo Mendi Elkarteen urteera: **Balerdira.**

- **San Migel jaien bukera.**

## 23

### EGUAKOTXA

- San Migel jaien hasiera.



## ARETXAZOKA

### Lana

- ✓ Edozein motatako lanak garbira pasetan ditut ordenagailuz. Interesatuak deitu 79 77 59 telefonora.

- ✓ Esperientziadun neska bat, prest dago, etxeko lanak eta umeak zaintzeko. Interesatuak deitu 79 77 92 telefonora.

### Etxebizitza

- ✓ Etxebizitza alokatzen da Aretxabaletan. Tfnoa: 79 89 56.

- ✓ Garaje bat salgai Andra Mari auzunean. Interesatuak deitu 79 68 35 telefonora.

- ✓ Bilboko Alde Zaharrean pisua osatzeko noar bait behar dugu. Interesatuak deitu 79 82 86 telefonora eta Maitegatik galdetu.

Orrialde hone-tako iragazkiak (lana, etxebizitza, salerosketak eta abar) debalde dira. Testua idatzi eta bidali gure bulegoetara edo 151 postakutxatilara.

# 94-95erako EUSKARA IKASTAROAK

**Maila guztiak: EUSKALDUNTZEN, ALFABETATZEN eta EGA**

ERRITMOA	IRAUPENA	PREZIOAK
Egunero 2 ordu	Iraila - Ekaina	21.100 pzta.
Egunero 3 ordu	Iraila - Ekaina	31.659 pzta.
Egunero 4 ordu	Urria - Abendua	12.688 pzta.
	Urtarrila - Martxoa	12.688 pzta.
	Apirila - Ekaina	12.688 pzta.
Egunero 5 ordu	Iraila - Otsaila	27.450 pzta.
	Otsaila - Ekaina	27.450 pzta.

*Bekatze sistemak eta diru-laguntzak izango dira.*

**MATRIKULALDIA:**

**Irailaren 1etik zabalik**

**BULEGO ORDUTEGIAK**

**Goizez: 9retatik 1etara**

**Arratsaldez: 3retatik 7etara**



**Aretxabaletako - Eskoriatzako " Leintz" Udal Euskaltegia**

Durana, 11 (Aretxabaleta) - Fernando Enparantza (Eskoriatza) ☎ 79 21 68

**Egin zaitez  
ARETXAGAZETAKO bazkide.**

**79 01 05 telefonora deituz.**